

Osasuna

JABIER AGIRRE

Nola gainditu umeen kasketaldiak

KASKETALDIEK HARRIDURA ETA EZINEGONA eragiten digute helduoi. Baina umea zein egoeratan aurkitzen den onartzea eta haren premiei irteera eta konponbidea emateko beste modu batzuk aurkitzea da, zalantzarik gabe, kasketaldiari aurre egiteko modurik egokiena, bai umearentzat, baita helduentzat ere.

Imajina dezagun egoera, ez da-eta hain arraroa: hipermerkatu batean gaude eta umea erosketa-orgaren barruan doa, han-hemen arreta deitzen dioten objektuetara eskua luzatuz. Gurasoa, ordea, estresak jota dabil, korrika eta presaka, erosketak nola edo hala bukatu nahian, etxera joateko irrikan. Umeak zerbait nahi du, baina gurasoak ez dio kasurik egiten. Orduan haurrak helduaren baimenik gabe zerbait hartu du eta gurasoak —nahiko modu zakarrean, egia esan—, zegoen lekuan uzteko agintzen dio.

Umea gero eta okerrago portatzen ari da, eta inguruko guztiak, pertsona helduak ia gehienak, ados daude, “gaur egungo umeak ikaragarriak dira, eta ez diete inolako errespeturik gurasoi”.

Ondoren gerta daitekeena aski ezaguna da. Inork ez du amore ematen, umea nahiko petralduta dago eta gurasoak ez du bere “autoritatea” galdu nahi, inondik inora. Ondorioa? Ezinegona, urduritasuna, eta handik joateko, desagertzeko gogoia. Eszenak ez dauka amaiera zoriontsurik. Denak haserre, errua elkarririk botaz, gauzak beti (besteak) gaizki egiten dituelako.

Eguneroko bizimoduan hain arruntak diren egoera horiek ez dira errazak umearentzat, batez ere aurrez nekatuta, aspertuta edo bakarrik sentitzen bada. Umeak handik irten beharra dauka, besterik ez. Baina helduei ere antzeko zerbait gertatzen zaigu. Aurre egin ezin diezaiokegun egoera baten aurrean aurkitzen garenean, urduritasunak eta ezinegonak harrapatzen gaitu, gure onetik ateratzen gaituen arrazoari ez diogu kasurik egiten, batez ere estutasunetik ateratzeko baliabiderik ez badaukagu. Bada, hori helduoi gertatzen bazaigu, pentsa zein erraz gertatuko zaien guk baino askoz ere baliabide gutxiago dituzten haurrei. Horregatik, saia gaitezen beraien lekuan jartzen, eta eman diezaiegun benetan beraiak diren bezala espresatzeko eta agertzeko aukera, haiei ere geure jardueraren barruan sartzeko modua eskainiz.



PICSDIGGER.COM

Eboluzioaren ordainetan, diabetes gehiago

Espeziearen eboluzioak prezio garestia izan dezake. Hala, onura jakin bat ekartzen digun gene berak gaixotasun bat izateko arriskua handitu ahal du. Aurkitutako azken adibidea 1 motako diabetesa errazten duen gene bat da.

<http://ttiki.com/17157> (Gaztelaniaz)

Gaixoaren hurrekoek hobeto antzeman dezakete alzheimerra

Ondorio horretara ailegatu da ikertzaile talde estatubatuar bat, AD8 izeneko testa probatu eta gero. Test berriak minutu bi besterik ez du irauten, eta memoria arazoak dituen gaixoari egin beharrean —ohi bezala—, senide edo lagun bati egiten zaio. Modu horretan lortutako emaitzak fidagarriagoak dira test tradizionalenak baino.

<http://ttiki.com/17235> (Ingeleseaz)

Elikadurari alergiaz dioten umeek bullying-a jasan ohi dute

AEBetan egindako ikerketa baten arabera, elikagairen bati alergiaz dioten 5 urtetik gorako umeen %35ak jazarpena jasaten du. Gai honi buruz egin den lehenbiziko ikerketa da.

<http://ttiki.com/17236> (Ingeleseaz)

Unai Brea

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16